

# AURRA ETA CHANELA.

Aurcho zuri-gorri bat, gaitzik etzuenan,  
 Anierusai ere zorrik etziena,  
 Egun batean nuan ikusi jostatzen,  
 Eta etzait geroztik burutik juaten.  
 Chanelacho bat zeukan korchoaz egiña,  
 Guztiz ederra eta biziari ariña,  
 Soka bat irachita botarik urera,  
 Aizeak zebilkion ara ta onera.  
 Batzuetan popatik ura sar naiean,  
 Besteetan tira-bira ia egiñean,  
 Aurrak sokaren bidez salbatutzen zuan,  
 Arkitutzen zanean ia ondatuan.  
 Apaiz birtutetsu bat begira zan jarri,  
 Andik iragotzean aurcho eder ari.  
 Ikusirikan aren enpeñu aundia  
 Iduki naian zuti chanel egokia,  
 Gogoratu zitzaion eskolatutzea;  
 Eta galdetu zion:—nere aur maitea,  
 ¿Esan nai al-didazu, aintzira orretan  
 Añ panpošo dabillen gauza ori zer dan?  
 —Bai jauna, bai: ori da, Jesusen Eleiza.—  
 Arriturik berriro zitzakion mintza:  
 —¿Eta darabilkien esku ori, zer da?  
 —Orri laguntzen dion Letarta<sup>1</sup> ber bera.  
 —¿Eta nondik dakizu egi aundi ori?  
 —Jauna, diot aditu gaur Maisu Jaunari.—  
 Aur erneari zion eranzun orduan:  
 —Egiaz, iragoko dirade munduan  
 Millaka gora-berak; baña, *garaitua*  
*Ez da inoiz izango Eleiza Santua.*—

OTAEGI-KO KLAUDIO.

(1) La Providencia.